




HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA EUSKADIN

Haurreskolak Partzuergoko
ikastetxeen 2016ko azterketa



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA


DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakunde (ISEI-IVEI) egin

Egileak: Ekain Ogando, Francisco Luna (Didaktika taldea)
Estatistika lana: Eduardo Ubieta (Metodoen taldea)

2017ko apirila



1. ESKOLATZE GOIZTIARRA.....	5
1.1. HEZKUNTZA GOIZTIARRAREN GARRANTZIA.....	7
1.2. JAIOTZA KOPURUAREN BILAKAERA EUSKADIN	10
1.3 SEI URTETIK BEHERAKO HAURREN ESKOLATZEA	11
1.3.1. HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA.....	11
1.3.2. ESKOLA PUBLIKO ETA PRIVATUETAKO ETA EUSKADIKO LURRALDE HISTORIKOETAKO MATRIKULAZIO TASAK	11
1.3.3 IRAKASLEAK	12
1.3.4. NAZIOARTEKO EGOERA	13
1.3.5. HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO HAURREN ESKOLATZEA EUSKADIN	14
1.4. HAURRESKOLAK PARTZUERGOA	16
2. IKERLANAREN EZAUGARRIAK	19
2.1. IKERLANAREN HELBURUAK	21
2.2. IKERLANAREN DISEINUA ETA METODOLOGIA	21
2.3. GALDERA-SORTAREN EZAUGARRIAK	22
2.4. BILDUTAKO LAGINAREN DESKRIPZIOA.....	22
3. FAMILIEN EZAUGARRIAK.....	25
3.1. EZAUGARRI SOZIO-EKONOMIKOAK ETA PRESTAKUNTZAKOAK.....	27
3.2. HIZKUNTZAREN ALDETIKO EZAUGARRIAK	29
3.3 JARDUERAK FAMILIAREN INGURUNEAN.....	30
4. HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO IKASTETXEEN BALORAZIOA	33
4.1. GOGOBEETETZE MAILA OROKORRA	35
4.2. HAURRESKOLETAKO HEZKUNTZA-LANAREN BALORAZIOA.....	36
4.3. HAURRESKOLETAKO ANTOLAMENDU-ALDERDIEN, INSTALAZIOEN ETA ZERBITZUEN BALORAZIOA....	38
4.4. FAMILIEN PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA	40
5. ONDORIOAK	43
6. BIBLIOGRAFIA ERREFERENTZIAK.....	49

1. ESKOLATZE GOIZTIARRA

1.1. HEZKUNTZA GOIZTIARRAREN GARRANTZIA

2014ko martxoan¹ eta 2015eko maiatzean ateratako txostenetan azaldu bezala, eskolaratze goiztiarraren inguruko azterketek eta ebaluazio-sistemek, argi erakutsi dute eskolaratze goiztiarrak eragin onuragarriak dituela. Europako Batzordeak egindako txosten ugaritan, hezkuntzako hainbat ikerlarik egindako azterketetan edota ELGaren PISA bezalako nazioarteko txostenetan, ondorioztatu dute, hezkuntza goiztiarrak abantaila ugari dakartzala, bai ikasketa-errendimenduan eta konpetentzien garapenean eta baita gizarteko desberdintasunak orekatzeko tresna bezala ere.

Aipatzekoak dira 2016ko apirilean Ameriketako Estatu Batuetan Friedman-Krauss, Barnett eta Nores irakasleek² “Center for American Progress” erakundeari eginiko txostenaren emaitzak ere.

“How Much Can High-Quality Universal Pre-K Reduce Achievement Gaps” izeneko txostenean aurkeztu dituzten emaitzek Haur Hezkuntzak eskola etapa bezala daukan garrantzia nabarmentzen du. Honez gain, haurren arteko emaitza akademiko eta sozialak berdindu daitezten (egoera sozioekonomiko ona eta ez hain ona dutenen artean), Haur Hezkuntza etapa, unibertsala eta finantzaketa publikoa duena izan behar dela aipatzen da.

“Haur Hezkuntzara sartzen diren Estatu Batuetako haur afroamerikarrek, egoera sozioekonomiko hobean dauden haurrekin alderatuz, 9-10 hilabeteko atzerapena dute matematikan eta 7-12 hilabetekoa, berriz, irakurketan.”

“Gizartean aurkitzen diren desberdintasun sozial eta ekonomikoak arintzeko beharrezko tresna da Haur Hezkuntza. Hala ere, haurren lehen urteetan eskolaratzeak ez du bermatzen haur horrek ikasketetan arrakasta izatea. Eskolaratzeaz gain kalitatezko hezkuntza bat izatea ere beharrezkoa da gizarteko desberdintasunak garaitzeko eta ikasketa errendimenduan arrakasta izateko.

“Kalitate handiko Haur Hezkuntza batek egoera sozioekonomiko ona duten eta afroamerikarren arteko desberdintasun akademikoa txikitzen du. Matematikan desberdintasun hori %45 jaitsiko litzateke eta %78 haur hispanoetan. Irakurketan, berriz, bi klase sozialetako haurren aldea desagertu egingo litzateke”.

Ilido berdinetik jarraituz, La Caixa Fundazioak bere “Estudios Sociales” bilduman ateratako “Aprendizaje y ciclo vital. La desigualdad de oportunidades desde la educación

¹ Ikusi 2014ko eta 2015eko txostenak: <http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/web/guest/educacion-infantil>.

² Allison Friedman-Krauss, W. Steven Barnett (zuzendaria) y Milagros Nores (2016): *National Institute for Early Education Research at Rutgers* (State University of New Jersey). “How Much Can High-Quality Universal Pre-K Reduce Achievement Gaps?”.

<https://www.americanprogress.org/issues/education/reports/2016/04/05/132750/how-much-can-high-quality-universal-pre-k-reduce-achievement-gaps/>

*preescolar hasta la edad adulta*³ ikerlanean, Estatu Batuetako ikerketaren oso antzeko ondorioak aipatzen ditu.

Ikerketa horrek ikasleen oinarrizko maila sozioekonomikoak zer nolako eragina duen errendimendu akademikoan aztertzen du eta ikastetxeek norainoko eragina duten gabezia horiek orekatzeko aztertu du.

“Haur Hezkuntzako etapan, haurrak eskolaratuak egoteak ondorio positibo eta onuragarriak ditu, bai maila sozioekonomiko baxua edo altua duten hurrengan. Hala ere, onurarik esanguratsuena maila sozioekonomiko baxuena duten familietako haurrak dira, bi aldiz gehiago maila sozioekonomiko altua duten familietako haurrak baino”.

“Eskolak, guraso hauek ematen ez dieten, beharrezko arreta eta estimuluak orekatzeko lana egiten du. Eskola berdintasunerako oinarrizko tresna bihurtuz. Hau ikusirik, eskola porrota Bigarren Hezkuntzako etaparekin lotzen bada ere, arazo horri aurre egiteko gakoa oinarrizko etapetan (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza) dago”.

Ikerketak ondorio argiak ateratzen ditu, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapak oinarrizkoak dira gizarteko desberdintasuna gainditzeko eta haur guztiei aukera berdintasuna bultzatzeko.

“Honez gain, pentsatzen denaren kontra, haurren arteko aukera berdintasuna bultzatzerako orduan hezkuntza pribatuetako ikastetxeek eragin oso antzekoa dute ikastetxe publikoekin alderatuz eta oinarrian etxetik ekarritako desberdintasun sozioekonomikoak ez dira aldatzen eskola publikoan edo pribatuan eskolaratuz gero.”

Hortaz gain, ikerketa horrek krisi ekonomiko garaian maila sozioekonomiko baxuko haurren arrakasta akademikoa izateko itxaropena %13 jaisten dela aipatzen du, eta aldiz erdi mailako errendimendua duten ikasleen artean %4ra. Batez ere, administrazio publikoko beka eta diru laguntzak maila sozioekonomiko baxuko familiengana ez direlako heltzen.

Hau dela eta, ikerketak honako hau esaten du ondorio gisa:

“Hezkuntza inbertsioa hasierako etapetan oso baliogarria da haurren arrakasta akademikoa lortzeko eta aukera berdintasun lortzeko, eta gizartean dauden desberdintasunak orekatzeko. Zehatzago esanda, Haur Hezkuntzako etapa da haur batzuk dituzten desabantailak murrizteko eta eskola porrota saihesteko bidea. Ikasle eta berain gurasoen maila sozioekonomikoak eragin zuzena du haurren aukera eta

³ Héctor Cebolla-Boado, Jonas Radl y Leire Salazar (2014): *“Aprendizaje y ciclo vital. La desigualdad de oportunidades desde la educación preescolar hasta la edad adulta”*, La Caixa Fundazioa, Colección Estudios Sociales, Nº 39.

http://prensa.lacaixa.es/obrasocial/volumen-39-coleccion-estudios-sociales-obra-social-la-caixa-educacion-preescolar-desigualdad-social-esp_816-c-21242_.html?obj=816,c,21242&view=photo

errendimendu akademikoan eta hasierako mailatan hezkuntzak desberdintasun horiek apurtzeko indarra dauka.

2016ko irailean *Save the Children*⁴ erakundeak ere aipatutako aurreko bi ikerketei bultzada emanez eta azaltzen dituen datuak eta ondorioak ikusita, eskola porrota saihestu eta baldintza sozioekonomiko desberdinek emaitza akademikoetan eraginik izan ez dezaten hezkuntza sistema ekitatibo bat lortzeko pausoak proposatzen dituzte.

“Eskolaurreko irakaskuntza aldia erabakigarria da haurraren bizitzan, ELGA, UNICEF edo Europako Batasuna bezalako erakundeek aipatzen duten bezala. Haur Hezkuntzako lehenengo etapa da desberdintasun sozioekonomikoak saihesteko bidea eta aukera berdintasuna bultzatzeko modua. Hau dela eta, politika publikoak sustatu behar dira Haur Hezkuntza etapa bultzatzeko”.

Hau ikusirik, eta Haur hezkuntzako hasierako etapa honek duen garrantzia izugarria denez, hezkuntza publiko, unibertsal eta ekitatibo bat lortzeko pausuak eman behar direla aipatzen da, besteak beste, gomendio hauek aipatuz.

- *0-3 arteko plaza kopurua igotzea batez ere hiri eta herri handietan.*
- *Ordaintza kuoten murrizketa, tarifa sozialak eta zerbitzua dohainik izatea.*
- *Diru laguntzak banatzeko sistemaren berrantolaketa, laguntza gehien behar dutenei erraztea.*
- *Maila sozioekonomiko baxua duten familien artean eskolaratze goiztiarren garrantzia aipatzea.*
- *Plazak banatzerako orduan dauden irizpideak ikusi eta sistema ekitatibo bat bultzatzea.*

Egindako ikerlanek aitortzen dute haurren eskolaratze goiztiarrak eta hezkuntza kalitate egokiek tresna egokia direla gizartean sortzen diren desberdintasunak orekatzeko, haur guztiei aukera berdintasuna bermatzeko eta pobrezia murrizteko. Ondorioa argia da: gizarte hobe lortzeko eta desberdintasun ekonomiko eta sozialak berdintzeko, finantzaketa publikoa eta kalitatezko hezkuntza sistema batera heltzeko lana egin beharko da.


⁴ Lilia Marcos y Thomas Ubrich (2016): *Save the Children*, “Necesita mejorar”, Anexo Euskadi, 2016ko iraila. https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/necesita_mejorar_veusk_cas_web.pdf

1.2. JAIOTZA KOPURUAREN BILAKAERA EUSKADIN

2012 eta 2013etan izandako jaiotza kopuruaren jaitsira nabarmenak 2014 urtean aldaketa txiki bat izan du. Jaiotze tasetan igoera txiki bat nabaritu da eta % 1,4ko igoera izan du. 2014an jaiotza kopurua 19.378ra heldu da.

Eustaten datuetatik hartutako ondorengo grafikoan 1995tik 2014ra (eskuragarri izan diren azken datuak)⁵ jaiotza kopuruek izan duten bilakaera azaltzen da, eta horrekin batera 1.000 biztanleko jaiotza-tasak aldi horretan izan duen bilakaera.

1.2.a. grafikoa. Jaiotza kopuruaren bilakaera eta 1.000 biztanleko jaiotza-tasaren bilakaera 1995etik 2014ra. Eustat datuak.



2014an jaiotza kopuruaren igoera handiena Araban (% 5,7) izan da; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, igoera ez da hain handia izan. Eskuragarri dauden datuen arabera, atzerriko amengandik jaiotako haurren kopuruak igotzen jarraitzen du; hain zuzen, 2014an Euskadin jaiotako haur guztien % 18,3 izatera heldu zen.

Jaiotza kopuruari lotutako datu hauek garrantzitsuak dira, aldagai hori nagusienetako bat da eskolatzeko beharrak etorkizunera proiektatzerakoan, eta baita, immigrazio-prozesuen ondorioz gertatzen diren gizarte-mugimenduak proiektatzerakoan. Hori dela eta, ezinbestekoa da datuak urteetan Haur Hezkuntzako matrikularen jaitsiera egongo dela aintzat hartzea. Hala ere, 2014. urteko datuak ikusirik, etorkizun hurbil batean berriro ere igoera txiki bat izango dute matrikulazioek.

⁵ 2011,2012,2013 eta 2014 datuak behin-behinekoak dira, web gunean esaten den bezala www.eustat.eus , http://www.eustat.eus/ele/ele0005700/tbl0005708_e.html#axzz4MI2RQxtA


1.3 SEI URTETIK BEHERAKO HAUREN ESKOLATZEA

1.3.1. HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA

1995-1996 ikasturtetik 2014-2015 ikastertera bitarteko Haur Hezkuntzako matrikulazio kopurua izugarri igo da. Azkenengo 20 urte hauetan 40.000 haur gehiago matrikulaturik daude. 2012-2013 ikastertean matrikulazio kopuru altuena (96.713) lortu zen, eta azkeneko urte hauetan matrikulazioak beheranzko joera erakusten du.

2012-2013 ikasturtetik aurrera matrikulazio jaitsiera gertatu da, jaitsiera honen zergatia arrazoitzeko orduan krisi ekonomikoa pasa ondorengo urteetan Euskadin gertatutako jaiotza beherakada izan daiteke. 2012-2013 datuekin alderatuz 2013-2014 ikastertean 1.230 matrikulatu gutxiago izan ziren eta 2014-2015 ikastertean 2.280 matrikulatu gutxiago.

1.3.1.a.grafikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako matrikulazio kopurua 1995-2015. Eustat datuak.



1.3.2. ESKOLA PUBLIKO ETA PRIBATUETAKO ETA EUSKADIKO LURRALDE HISTORIKOETAKO MATRIKULAZIO TASAK

EAE n Haur Hezkuntzako haurren matrikulazioa eskola publiko eta pribatuen artean banatzen da. Azkenengo urteetako datuak aztertu ondoren, hauxe dakigu: Euskadiko haur gehienak eskola publikoan matrikulatzen direla. Euskal Autonomia Erkidegoko azkeneko 15 urteetako datuak aztertuz, batez beste, haurren % 52 eskola publikoan matrikulatzen da, eta ikastetxe pribatuetan, berriz, % 48a. Azkeneko ikasturte honetan ere, antzeko joerari eutsi zaio, eskola publikoan % 52,5 matrikulatuz eta pribatuan, berriz, % 47,5a.

**2014-2015 ikasturteko Euskal Autonomia Erkidegoko matrikulazio datuak,
EUSTAT-en arabera**

SAREA	PUBLIKOAN	PRIBATUAN	GUZTIRA
%	% 52,5	% 47,5	% 100
Kopurua	49.571	44.862	94.433

Datuak lurraldeka aztertuz gero, Arabako lurraldean gertatzen da eskola publiko eta pribatuaren arteko desberdintasun handiena: haur Hezkuntzako ikasleen % 60a baino gehiago eskola publikoan matrikulaturik dago, eta % 40a baino zertxobait gutxiago, berriz, pribatuan. Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, eskola publikoaren eta pribatuaren arteko desberdintasunak ez dira hain nabarmenak. Gipuzkoan haurren % 52a eskola publikoan matrikulaturik dago, eta eskola pribatuetan %48a. Bizkaian, beste bi lurraldeetan ez bezala, pribatuan haur gehiago daude matrikulaturik; hala ere diferentzia oso txikia da.

**2014/2015 ikasturteko matrikulazio datuak EAE lurralde historikoen arabera.
EUSTAT-en arabera**

	ARABA		GIPIUZKOA		BIZKAIA	
	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua
PUBLIKOA	% 61,6	9.381	% 52,5	17.077	% 49,5	23.113
PRIBATUA	% 38,4	5.814	% 47,5	15.432	% 50,5	23.616
GUZTIRA	% 100	15.195	% 100	32.509	% 100	46.729

1.3.3 IRAKASLEAK

2014-2015 ikasturtean, Haur Hezkuntzan matrikulatutako haur taldeari beharrezko erantzuna eta arreta emateko, hezkuntza sistema guztian ia 10.000 irakasle dabilta lanean. Jaiotze tasa igo den bezala matrikulazio kopuruak ere goranzko egin du, eta, datuak biltzen hasi direnetik, 3.120 irakasle izatetik 9.824 izatera pasatu da. Aipagarria da, oso txikia dela, Haur Hezkuntzako etapa honetan gizonezko irakasleen presentzia % 8,5 soilik. Hori bai, azken ikasturteetako datuak ikusirik, gero eta gizonezko irakasle gehiago aurkitzen dira eskoletan; *Eustaten* datuen arabera, 1994-1995 ikasturtetik gaur egunera bikoiztu egiten da kopurua.

2014-2015 ikasturteko gizonetako eta emakumezkoen irakasle kopurua Haur Hezkuntzan, EUSTAT-en arabera

	ARABA		GIPIZKOA		BIZKAIA		EAE	
	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua
GIZONEZKOAK	% 11,5	186	% 6,8	228	% 8,5	417	% 8,5	831
EMAKUMEZKOAK	% 88,5	1.434	% 93,2	3.117	% 91,5	4.442	% 91,5	8.993
GUZTIRA	% 100	1.620	% 100	3.345	% 100	4.859	% 100	9.824

Aipatu bezala, datuak biltzen hasi zirenetik, gizonetako irakasleen presentzia Haur hezkuntzan bikoiztu egin da, oraindik ere ordea, heziketaren aurreko etapetan diharduten gizonak oso gutxi dira. Gizartea aldatzen doan heinean (familia monoparentalak, sexu bereko gurasoak, kultur eta erlijio desberdineko familiak) emakumeen eta gizonetakoen rola ere aldatzen hasi dira. Dena dela, emakumezko eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko lanean jarraitu beharra dago.


Gainera, Haur Hezkuntzako etapa, Lehen Hezkuntzako etaparekin alderatuz gero, EAE-n Lehen Hezkuntzako gizonetako irakasleen presentzia %20ra igotzen da. Lehen Hezkuntzako etapak garrantzi eta prestigio gehiago izaten jarraitzen du gizartean, egia da aldaketak nabari direla eta badirela Haur Hezkuntzako etapari inportantzia berdina edo gehiago ematen diotenak, dena den lan asko dago egiteke. Hau honela izanik, irakasle gizonetakoak adinez nagusiago diren ikasleekin egoteko interes gehiago erakutsi dute betidanik.

Aipatutako iritzi eta ideia hauek, emakumeen eta gizonetakoen arteko berdintasuna lortzeko bidean zailtasun izugarriak dira. Gizarte edo kulturaren eta pertsonen iritzietan, instituzio publiko zein pribatuetan gizonetako eta emakumezkoen presentzia berdina izan dadin esfortzu asko dago egiteko. Eta egoera hori gaintzeko bidetako bat Haur Hezkuntzan gizonetako irakasleak egotean datza, gizartean eta familietan gizonetakoak emakumeak bezala lan egiteko gaitasuna aitortuz.

1.3.4. NAZIOARTEKO EGOERA

Nazioartean, Euskadik 2013-14 ikasturtean Europako herrialde eta erkidegoen artean 3 urteko eskolatzetasa altuena dauka, Frantziaren atzetik. 4 urteko eskolatzetasan, berriz, Euskadik eskolatzetasa oso ona dauka % 98a.

1.3.4.b. grafikoa. 3 eta 4 urteko haurren eskolatzeta-tasa EBko herrialdeetan. 2013-14 ikasturtea.



Nazioarte mailan, haurtzaroari eman beharreko erantzuna dela eta, ez dago batere adostasunik. Herrialde bakoitzak bere eredua du familiei eta haurtzaroari laguntza emateko orduan. Gure ingurune hurbilean haurrak eskolatzearen aldeko apustua egin da, baina beste herrialde batzuetan gurasoentzako eta haurrentzako beste mota bateko zerbitzuak lehenesten dira, edo familiak haurrak zaintzea lehenesten da amatasun-aitatasun baimenak luzatuz, lan-ordutegi malguagoak finkatuz edo familiei diru-laguntza handiagoak emanez.

1.3.5. HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO HAUREN ESKOLATZEA EUSKADIN

2011-2012 ikasturteetan eskolatzeta tasa altuena (% 39,1) lortu ondoren, hurrengo ikasturteetan beherakada lehen zikloko haurren matrikulazioan nabarmena izan da. Gaur egunean, 2014-2015 ikasturteko datuak dira⁶ azkenak eta % 35,2an aurkitzen da matrikulazio tasa. Ondorengo taulan biltzen dira ikastetxe publikoetako datuak (*Haurreskolak Partzuergokoak* eta haurrentzako udal eskoletakoak) eta ikastetxe pribatuetakoak (haurrentzako eskolak eta itunpeko ikastetxeak).

⁶ http://www.consejoescolardeeuskadi.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=675968f2-0f17-4876-b5a2-f0c00eb14ddb&groupId=17937

0-2 urteko haurren matrikularen bilakaera Euskadin hezkuntza-sarearen arabera.

	2012-2013	2013-2014	2014-2015	Δ azken ikasturtean
Publikoa	6.954	6.051	5.400	- 651
Pribatua	6.501	6.141	5.865	- 276
Guztira	13.455	12.192	11.265	- 927

Iturria: Hezkuntza Euskadin 2013-2015. Euskadiko Eskola Kontseilua.

2 urtekoen irakasmilan, txosten horren arabera, eskolatzetasa ia ez da jaitsi, % 93,1 geratuz.

2 urteko haurren matrikularen bilakaera Euskadin hezkuntza-sarearen arabera.

	2012-13		2013-14		Δ azken ikasturtean	
	Matrikula	Eskolatzet indizea	Matrikula	Eskolatzet indizea	Matrikula	Eskolatzet indizea
Pub.	10.932	% 51,7	10.600	% 51,6	-332	-0,1
Prib.	8.787	% 41,5	8.508	% 41,4	- 279	-0,1
Guztira	19.719	% 93,2	19.108	% 93,1	- 611	-0,1

Iturria: Hezkuntza Euskadin 2013-2015. Euskadiko Eskola Kontseilua.

Hezkuntza Ministerioaren Instituto Nacional de Evaluación Educativa (INEE) erakundeak argitaratutako *Adierazleen Estatuko Sistemako* azken datuek⁷ (2013-2014 ikasturtean) ere goiko taulan ikusten diren emaitza antzekoak adierazten dituzte, hau da, Euskadin matrikulazio kopurua beherantz doala.

Haur Hezkuntzako lehen zikloan matrikulatutako ikasle kopurua (estatu mailan) igo egin da, urte bat baino gutxiagoko ikasleetan (+ % 0,2), urte bat duten ikasleetan (+ % 1,5) eta 2 urteko ikasleen matrikulazio tasak (+ % 0,3)

Estatu mailan urte batetik beherako haurren eskolatzet-tasak % 10ean kokatzen da, urte batekoen kasuan berriz % 34,1ean eta bukatzeko bi urtekoen kasuan % 52,1ean.

0-2 urteko haurren matrikulazio tasaren bilakaera Euskadin

	2011-2012	2012-2013	2013-2014
<1urteko ikasleak	% 20,3	% 19,8	% 17,4
1 urteko ikasleak	% 44	% 44	% 43,1
2 urteko ikasleak	% 91,3	% 92,4	% 91,6

Iturria: Adierazleen Estatuko Sistemako 2016

⁷ <http://www.mecd.gob.es/dctm/inee/indicadores/2016/seie2016okkk.pdf?documentId=0901e72b8222f7d1>

Hezkuntza-etapa horretako lehen zikloari dagokionez, Euskadiko matrikulazio tasa beherantz doa, baina oraindik ere, Euskadik lortzen dituen matrikulazio tasak oso altuak dira beste autonomia erkidegoko datuekin alderatuz, adibidez urte batetik beherako haurren eskolatzeta-tasa estatu mailako altuena dauka (% 20,3) eta ondoren Madrilek jarraitzen dio (% 15,4)

Urte bateko ikasleen matrikulazio tasen kasuan Madrilgo komunitateak datu hobekak lortzen ditu (% 46,4) hala ere Euskadi pare parean dago (% 44,2).

Bi urteko ikasleen kasuan izugarria da Euskadik lortzen dituen datuak estatuko beste autonomia erkidegokoen alderatuz, taulan ikusten denez % 91,6ko matrikulazio tasa dauka Euskadik, aldiz ondoren datorren Madrilek % 64,5a eta Kantabriak % 62a.

1.4. HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

Haurreskolak Partzuergoa 0 eta 2 urte bitarteko haurreskola publikoak kudeatzen dituen entitate publikoa da. Entitate hau Eusko Jaurlaritza eta udalen artean sinatutako hitzarmenei esker sortzen da.

Haurreskolak Partzuergoaren helburua 0 eta 2 urte bitarteko haurrei zuzendutako hezkuntza-zerbitzu osoa eskaintzea da, hala nola laguntza soziala, bereziki lana eta familia bizitza bateratzearen arloan.

Hezkuntza eta laguntza zerbitzua eskaintzeko *Haurreskolak Partzuergoan* barneratzen diren udalek indarreko legediarekin bat datozen instalazioak eduki beharko dituzte, hauek Hezkuntza Sailak ikuskatu eta balioetsiko ditu. Aldi berean, udalek instalazio horien mantentze, garbiketa eta zaintza aurrera eraman beharko dituzte.

Haurreskolak Partzuergoa haurreskolen kudeaketa osoaz arduratzen da, horretarako hezitzaile adituez osatutako langilegoa du.


2015-2016 ikasturteko datuen arabera⁸, *Haurreskolak Partzuergoak* haurrentzako 232 ikastetxe ditu 177 udalerritan banaturik. Ikastetxe horiek 8.372 plaza dituzte 0-2 urteko haurrentzat. 2015-2016 ikasturtean 6.102 haur egon dira matrikulaturik.

Galdera-sorta egin zen garaian, 2016ko ekainean, 95 ikastetxe zeuden lanean Bizkaian, 90 Gipuzkoan eta 47 Araban.⁹

⁸ <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/28017-hasi-ikasturtea-haurreskolak-partzuergoan?track=1>

⁹ http://www.haurreskolak.eus/adj_documentos_informacion/283.pdf

Haurreskolak non dauden eskualdeka
 (udalen kopurua 2016ko maiatza)



HAURRESKOLEN TIPOLOGIA

Eskaintzen diren plaza kopuruak eta hezitzaileen ratioak zehazten da udalerrri bakoitzean *haurreskola* bakoitzaren tipologia¹⁰.

	Haurren gehienezko kopurua	Hezitzaileen kopurua
0 urtekoen gela	8	Gelako 2: Lanaldi osoarekin bata eta lanaldiaren erdiarekin bestea
0 urtetik 1era bitarteko taldekatzea	10	Gelako 2: Lanaldi osoarekin bata eta lanaldiaren erdiarekin bestea
Urte 1ekoen gela	13	Gelako 2: Lanaldi osoarekin bata eta lanaldiaren erdiarekin bestea

¹⁰ Hezitzaile bakarra kontratatuko da, gelak lau haur besterik ez dituenen. Hiru haur baino gutxiagorekin ez da *haurreskola* zabalduko.

Haurreskolak Partzuergoak heziketa-zerbitzua eskaintzen du, lehen haurtzaroko umeen eta haien familien beharrak betetzeko. Ikastetxearen tamainaren arabera eta familien eskarien kopuruaren arabera finkatzen dira sartzeko eta irteteko ordutegiak. Partzuergoak urtean hiru izen emate aldi markatzen ditu, honela familien behar izanetara egokituz. Haurreskolako hileko kuotaren kalkulua, familia unitatearen errenta estandarizatuaren arabera egingo da. Familien esku geratzen da bazkaria etxetik eramatea edo catering zerbitzua erabiltzea.

Webgune ofizialean –www.haurreskolak.eus– informazio ugari dago ikastetxeen kokaguneari buruz, hezkuntza planteamenduei buruz eta lege-araudiei buruz. Atal berezi bat dago ikastetxeak erakusteko, berdintasunari lotutako beste atal bat, eta beste bat askotariko informazioa emateko. Horrez gain, Enplegu Eskaintza Publikoari buruzko bi atal berezi daude, eta esparru mugatu bat.

2. IKERLANAREN EZAUGARRIAK

2012ko ekainean *Haurreskolak Partzuergoaren* eta Irakas-sistema Ebaluatze eta Ikertze Erakundearen (ISEI-IVEI) arteko lankidetzak hitzartu zen. Hasteko, familientzako galdera-sorta definitu zen, *Haurreskolak Partzuergoaren* ikastetxeetako errealitatea ongi ezagutzeko eta ebaluazio - irizpideak finkatzeko.

Une horretatik bi datu-bilketa egin dira, 2012-13 eta 2013-14 ikasturteetan. Beraz, hau da hirugarren ikerketa, familiek egiten duten heziketa-zerbitzu honen balioespena ezagutzeko. Hirugarren informazio-bilketa hau garrantzitsua da, batetik, aurreko datuen tinkotasuna ikus dezakegulako eta, bestetik, joerak egiaztatze aukera ematen digulako.

2.1. IKERLANAREN HELBURUAK

Ikerlan honen helburu nagusia hau da: ***Haurreskolak Partzuergoaren* ikastetxeetako egoera ezagutzea, eta baita, familiek ikastetxe horietan egiten den lana nola baloratzen duten ezagutzea ere.**

Aurreko edizioetan gertatu den bezala, ikerlanean lortzen diren emaitzetan oinarriturik, ekintza berriak definitu ahal izango dira, eta, horrekin batera, ikastetxe-sare bezala hobetzeko irizpideak finkatu eta 0-2 urteko haurren eskolatzeko hobetzeko iradokizunak jaso.

Ikerlanaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- Haurrak *Haurreskolak Partzuergoan* dituzten familien zenbait ezaugarri ezagutzea.
- Familiek *Haurreskolak Partzuergoaren* zerbitzuaz duten iritzia jasotzea.
- *Haurreskolak Partzuergoaren* ikastetxeen kalitatea ebaluatzea.

2.2. IKERLANAREN DISEINUA ETA METODOLOGIA

ISEI-IVEIk sortu zenetik hainbat inkesta egin izan ditu nazioarteko, estatuko eta gure autonomia erkidegoaren barneko ebaluazioetan parte hartu duten familien, ikasleen eta zuzendaritza taldeen artean. Oraingo honetarako, 2009tik 2015era Lehen Hezkuntzako 4. mailan egindako Ebaluazio Diagnostikoetan erabilitako galdera-sortaren eredua erabiltzea erabaki zen. 2013ko udan bildu ziren datuen analisiaren ondorioz, ISEI-IVEIk lehen aldiz 2014ko martxoan "*Haurreskolak Partzuergoaren ikastetxeen azterketa eta balorazioa*"¹¹ ikerlana argitaratu zuen. Ondoren, ildo beretik jarraituz 2015eko maiatzean beste txosten¹² bat argitaratu zen, bigarrena, eta oraingoa, hirugarren aldiz, txosten hau aurkezten da.

Familientzako galdera-sortari Interneten bidez erantzun zioten. ISEI-IVEIren Metodoen Taldeak aplikazio informatiko bat diseinatu eta abiarazi zuen, eta *Haurreskolak Partzuergoko* ikasle bakoitzari "erabiltzaile-izena" eta bi pasahitz eman zitzaizkion. Hari esker, haur bakoitzeko galdera-sortara guraso bat edo bi sar zitezkeen. Aplikazio informatikoak aukera ematen zuen aurrera joateko, atzera joateko eta galderak erantzun gabe uzteko.

¹¹ http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/haurreskolak/exekutiboa_Haurreskolak_eus.pdf

¹² http://www.haurreskolak.eus/adj_documentos_informacion/485.pdf

Haurreskolak Partzuergoak, ikastetxe bakoitzeko hezitzaileen bitartez, familiei kodeak eta URL helbidea jakinarazteko ardura hartu zuen, eta ISEI-IVEIko taldeak aplikazio informatikoaren ardura eta ondorengo datuen trataeraren ardura hartu zuen, eta prozesu osoaren isilpekotasuna bermatu zuen.

2.3. GALDERA-SORTAREN EZAUGARRIAK

Lankidetzaren ondorioz, 24 galderako galdera-sorta bat prestatu zen, bost atal hauetan banaturik:

- **Familien profila.** Atalik luzeena, askotariko galderak sartzen baitira: jaiotze data eta lekua, gurasoen lana eta ikasketa-maila, etxearen zenbait ezaugarri, senideen kopurua, etxeko hizkuntza, familian egiten diren jarduerak eta beste batzuk. Prestakuntzari buruzko galdera ireki bat ere badago.
- **Ikastetxeko instalazioak eta zerbitzuak.** Atal honetan 15 alderdiren balorazioa eskatzen da (adibidez, espazioak, ordutegiak, baliabideak, segurtasuna...): oso desegokia, desegokia, egokia, oso egokia eskalan.
- **Parte hartzea eta elkarlana.** Atal honetan 11 galdera egiten dira ikastetxearen eguneroko funtzionamenduari buruz; adibidez, taldeko bilerak, banakako elkarrizketak, materialen trukea, jardueretan parte hartzea, eguneroko informazioa eta abar. Erantzun itxia eskatzen da: bai ala ez.
- **Hezkuntza-lana.** Atal honetan hezkuntza eta antolamendu alderdiak aztertzen dira. Hezkuntza alderdien artean gizonen eta emakumeen berdintasuna, haurren garapena, behar pertsonalei nola erantzun eta abar aipatzen dira. Antolamenduaren alderdietan balorazioa eskatzen da egokitze prozesuari, bilere, txostenei eta abarrei buruz.
- **Balorazio orokorra.** Atal honek bukaera ematen dio galdera-sortari hiru galderarekin. Lehenengo bietan gogobetetze orokorrari buruz galdetzen da, eta azken galderan lau bat lerroko espazio irekia eskaintzen da.

Galdera guztiek erantzun itxia eskatzen dute galdera batean izan ezik, erantzun irekikoa baita. Izan ere, galdera-sortaren bukaerako espazio irekian 657 pertsonak euren iradokizunak, balorazioak, zorian mezuak edo eskariak idatzi zituzten.


2.4. BILDUTAKO LAGINAREN DESKRIPZIOA

Hasierako populazioaren %23,86k bete du galdera-sorta. Hain zuzen ere, 2016ko ekainean *Haurreskolak Partzuergoan* matrikulatutako 6.102 ikasletik 1.456 familiek erantzun zuten. 2014an 1.939 erantzun jaso ziren, % 32,84. Eta 2013ko ekainean, bukatzeko, 1.664 familiak erantzun zuten; hots, % 26,7.

Aintzat hartu behar da haur bakoitzak bi pasahizetako kodea zuela, bi gurasoek erabili ahal izateko. 292 pertsona sartu ziren erabiltzaile-izen bera eta bi pasahitzak erabiliz; hau da, bi gurasoek erantzun zuten.

	Ikasle kopurua	Erantzundako familia kopurua	Erantzundako familia %
2013	6.239	1.664	% 26,7
2014	5.904	1.939	% 32,8
2016	6.102	1.456	% 23,9

2.4.a grafikoa. Galdera-sortari erantzun dioten familien ehunekoak eta kopurua.



Lurraldeen araberrako parte-hartzeari dagokionez, Bizkaiko 86 ikastetxetako familiek erantzun zuten, Gipuzkoako 79 ikastetxetakoek eta Arabako 40 ikastetxetakoek, eta parte-hartzea 2015koa baino apur baxuagoa izan da. Hala ere, 26 ikastetxetan (2015an baino 11 gehiago) inongo familiak ez zuten erantzun, ezta koderik erabili ere (Arabako 7, Bizkaiko 7 eta Gipuzkoako 12)

- o Familia gehienek (% 64,7) gaztelaniaz bete zuten galdera-sorta. Heren batek baino apur bat gehiagok (%35,3) euskaraz bete zuten. Ehunekoak 2013 eta 2014koen antzekoak izan ziren.
- o Inkesta bete zuten gurasoen % 70,9 amak ziren (1.136), eta % 19,3 bakarrik aitak (309). Inkesta bete dutenen artean % 1 haurraren tutoreak izan dira (ez ama eta ez aita). Inkesta bete dutenen artean %9,7k ez du identifikatu bere burua. Ehunekoak ez ziren nabarmen aldatu 2013 eta 2014 datuekiko.
- o Laginaren sexuaren aldetiko banaketa nahiko orekatua zen: % 46,4 neskek ziren eta % 53,6a mutilak.
- o 657 pertsonak (2014an baino 158 gutxiagok) idatzi zuten euren iritzia edo iruzkina galdera-sortaren azken galdera irekian.

3. FAMILIEN EZAUGARRIAK

3.1. EZAUGARRI SOZIO-EKONOMIKOAK ETA PRESTAKUNTZAKOAK

Familiantzako galdera-sortako galdera batzuk gurasoen ezaugarri pertsonalei buruzkoak dira (adibidez, jaioturtea eta lekua edo ikasketa-maila). Horrez gain, hainbat datu eskatzen zaizkie etxean dituzten baliabideei buruz (adibidez, liburuak edo gela kopurua).

Bildutako informazioari esker, lagineko familien profil orokorra egin ahal izan da, eta datu horiek Lehen Hezkuntzan 2015ean egindako Ebaluazio Diagnostikoan bildutakoekin gurutza daitezke. Gurasoen maila sozio-ekonomikoa ezagutzeak hezkuntza-erakundeei lana egokiago egiteko eta ikasleen garapena hobetzeko aukera ematen die.

Hona hemen, horren inguruko alderdirik garrantzitsuenak:

- Lagineko haurren % 95,8 2014an (% 56,8) eta 2015an (% 39) jaiok dira. Ama gehienak (% 54,9) 1977tik 1982era bitartean jaiok dira, hots, 35-40 urte bitartekoak dira. Denbora tarte horretan jaiotako aitek % 54,9 dira ere.
- Jaioterriari dagokionez, haurren gehiengo handi bat (% 98,6) Euskadin jaiok dira. Euskadin jaiotako aiten ehunekoa (% 88,4) eta amena (% 85,8) txikiagoak dira.
- Euskaditik kanpo jaiotako haurren artean, 9 atzerrian jaiok dira eta 8 beste autonomia erkidego batean. Ez dago daturik *Haurreskolak Partzuergoan* matrikulatutako haur etorkinen ehunekoari buruz.
- Senideen ikasketa-mailarik altuena aztertzerakoan, aiten % 89,6k eta amen % 96k derrigorrezko hezkuntzaren osteko ikasketak dituztela ikusten da. Batxilergoko ikasketak (% 41,3) eta unibertsitateko ikasketak (% 48,3) dituzten aiten ehunekoetan ez dago desberdintasun handirik. Hala ere, amen kasuan, unibertsitateko ikasketak dituztenen ehunekoa (% 68) eta Batxilergoko ikasketak (% 28) dituztenen amen arteko diferentzia oso handia da.

Gurasoen ikasketa mailarik altuena

	Aiten %	Amen %
Oinarrizkoak bukatu gabe	0,9	0,4
Derrigorrezkoak bukatuta	9,5	3,6
Batxilergoa, LH...	41,3	28
Unibertsitatekoak	48,3	68

- Gurasoen lana dela eta, langabezian dauden aiten ehunekoa % 3,4 da eta amenarena % 6,2, ia bikoitza dela ikus daiteke. Bai aiten lana bai amena maila ertain-altukoa dela; hau da, lanbide kualifikatuen taulan goi mailan daude.
- Familia motari dagokionez, ikasle gehienak (% 95,8) bi gurasoekin bizi dira, eta gutxiengo bat (% 2,8), amarekin bakarrik eta beste (% 0,2) aitarekin bakarrik.
- Familiek dituzten baliabideei dagokienez, datuak falta dira *Haurreskolak Partzuergoan* matrikulatutako populazioaren irudi orokorra lortzeko. Jarraian, inkesta bete duten familien erantzunak azaltzen dira. Taulan ehunekoan hiru zutabe daude: lehena, 2013an galdera-sortari erantzun zioten familien

ehunekoak dira; bigarrenak, 2014an jasotako datuak eta azkena, 2016an bildutakoak.

Azken urteetako egoera eta etxean dauden baliabideak	2013	2014	2016
Ipuina, haur literatura formatu ezberdinetan (liburua, CDa, DVDa ...)	% 94,9	% 90,0	% 93,1
Interneteko konexioa	% 94,1	% 90,7	% 92,8
Haurrak bere logela du	% 76,7	% 72,2	% 74,3
Entziklopediak, hiztegiak edo kontsulta liburuak	% 74,3	% 70,1	% 66
Familiak oporretan egun batzuk eman ditu hotel, kanpin, landetxe edo apartamentu batean	% 66,9	% 69,5	% 73,8
Aldizkari espezializatuak edo teknikoak	% 49,8	% 49,3	% 46,4
Literatura klasikoko liburuak	% 40,1	% 39,0	% 34,1
Etxeko lanak familiatik kanpoko pertsona batek egiten ditu	% 19,7	% 21,4	% 21,7
Eguneroko prentsa	% 19,5	% 17,0	% 14,4
Altzari egokituak, protesiak (premia bereziak)	% 5,2	% 3,9	% 3,9

- Ikus daitekeenez, *Haurreskolak Partzuergoko* familien ezaugarri batzuk oso antzekoak dira hiru edizioetan, eta lagungarriak dira haurrak dituzten Euskadiko familien profila egiteko. Adibidez, ikusten da, aldizkari, liburu eta egunero prentsa bezalako baliabideak gero eta gutxiago erabiltzen direla eta Interneteko konexioa gero eta familia gehiagok duela. EUSTATEk dioenaren arabera, EAeko biztanleriaren %78k Internet konexioa dauka etxean, (*“EAeko familiei informazioaren gizarteaz egindako inkesta. 2015”*¹³).
- Lagineko etxeetan dituzten objektuei eta espazio jakinei dagokienez, gehienak ongi hornituak daudela ikus daiteke. Aurreko atalean etxeko baliabideekin gertatzen zen bezala, atal honetan ere *Haurreskolak Partzuergoko* familien erantzunetan antzeko ehunekoak izan dira 2013an, 2014an eta 2016an.

		Bat ere ez	Bat	Bi	Hiru	Lau edo gehiago
Ordenagailuak	2013	% 1,8	% 49,2	% 36,7	% 9,5	% 2,9
	2014	% 1,9	% 52,3	% 35,4	% 8,2	% 2,2
	2016	% 1,8	% 55	% 32,5	% 8,3	% 2,5
Autoak	2013	% 1,0	% 30,3	% 65,2	% 2,9	% 0,6
	2014	% 1,5	% 31,2	% 63,6	% 3,2	% 0,5
	2016	% 1,5	% 31,1	% 63,5	% 3,7	% 0,2
Bainugelak	2013	% 0,3	% 33,1	% 58,0	% 6,7	% 1,0
	2014	% 0,4	% 35,5	% 57,7	% 5,7	% 0,7
	2016	% 0,1	% 32,6	% 61,8	% 4,8	% 0,6

¹³ http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013100/ti_Informazioaren_Gizartearen_Panorama_Euskadi_2015_pdf_27_MB/inf0013140_e.pdf

Logelak	2013	% 0,1	% 0,8	% 27,5	% 64,2	% 7,4
	2014	-	% 0,7	% 30,7	% 62,9	% 5,7
	2016	-	% 0,3	% 28	% 65,3	% 6,4

Goiko taulan ikusten den bezala, *Haurrekolak Partzuergoan* haurrak dituzten gurasoen ekipamenduetan ez da aldaketa handirik egon, 2013ko datuak eta 2014ko datuak gaur egunekoekin alderatuz, oso antzekoak dira.

- Etxean dauden liburuen kopurua ondorengo taulan jasotzen da, 2013an eta 2014an egindako inkestako ehunekoekin konparaturik. Ikus daitekeenez, ehunekoak oso antzekoak dira hiru ikerlanetan.

Liburuak etxean	0-50	50 - 100	100 - 200	200-500	> 500
2013	% 39,8	% 26,3	% 17,0	% 12,2	% 4,7
2014	% 36,4	% 30,3	% 18,1	% 12,4	% 2,8
2016	% 39,5	% 30,2	% 16,8	% 10,3	% 3,2

Liburu kopuru handirik ez dago *Haurrekolak Partzuergo*ko familien etxeetan: herenak baino gehiagok ez du 50 liburutik gora, eta %15era ere ez da heltzen 200 liburu baino gehiago dituztenak. Datuak 2013ko eta 2014ko inkestan jasotakoaren oso antzekoak dira.

3.2. HIZKUNTZAREN ALDETIKO EZAUGARRIAK

Galdera-sortan etxean gehien erabiltzen den hizkuntzari buruzko galdera batzuk egin dira, haurraren harremanetarako hizkuntza nagusiari buruz eta bikote-harremanetarako hizkuntzari buruz.

- Etxeko hizkuntzari dagokionez, inkesta bete duten pertsonen % 55ek erantzun du haurrekin beti edo ia beti euskaraz hitz egiten dutela. % 41,9k erantzun du haurrekin beti edo ia beti gaztelaniaz hitz egiten dutela. Bikotekidearekin erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez, gaztelaniaren presentzia oso altua da (% 72); gaztelania etxeko hizkuntza bezala (afariak, jolasak, telebista...) % 60,3k erabiltzen dute. Aurreko ataletan bezala, hemen ere 2013ko, 2014ko eta 2016ko txostenetan oso antzeko ehunekoak lortzen dira.

3.3 JARDUERAK FAMILIAREN INGURUNEAN

Inkestan zenbait galdera sartzen dira gurasoek haurrekiko duten jarrerari buruz eta eguneroko jarduerari eta egoerari buruz. Galdera horiek haurren garapenari eragiten dioten harreman estilo pertsonalei eta eguneroko jokabideei loturik daude.

- Familiaren inguruneari eta harremanei dagokienez, galdera-sortako jarduera guztiak maiztasun handiz gauzatzen dira lagineko familietan. Irakurketaren inguruko jarduerak egitea oinarri-oinarrizkoak da bizitzaren hasierako urteetan, ipuin bat kontatzea eta irakurtzea bezalako ekintzak % 72,9 nahikotan + sarritan egiten dituztela erantzun dute. Ondorengo taulan *nahikoa* + *askotan* ataletako erantzunak bildu dira ikuspegi orokorra izateko. Horrez gain, ikerlanaren hiru edizioetako datuak konparatzen dira:

	Nahikoa + askotan		
	2013	2014	2016
Irribarre egin eta haurrari irribarrea itzuli	% 99,8	% 99,9	% 99,8
Seme/alabari argi hitz egin aurpegiara begiratu	% 98,0	% 98,4	% 98,4
Laztandu eta masaje leunak eman	% 96,3	% 96,9	% 96,6
Musika entzun, kantatu	% 92,5	% 92,1	% 92,0
Ipuinak kontatu eta irakurri	% 72,8	% 72,3	% 72,9

- Haurraren eguneroko zaintza-lanez arduratzen diren ala ez galdeturik, familia gehienek *askotan* erantzun dute, eta horrek adierazten du gurasoek lan horietan ardura handia dutela. Beheko taulan zaintza-lan bakoitzerako emandako erantzunak azaltzen dira, *nahikoa* eta *askotan* ehunekoak baturik:

	Nahikoa + askotan		
	2013	2014	2016
Higienea, pixoihalak aldatu...	% 97,7	% 97,9	% 97,7
Haurrari jaten eman	% 95,3	% 94,3	% 93,4
Haurra bainatu	% 92,0	% 92,0	% 91,3
Pediatría kontsultara joan	% 91,7	% 92,1	% 91,5
Haurrari loak hartzen lagundu	% 89,7	% 90,9	% 91,3

Jarduera horiek haurraren bizitzaren eguneroko uneei loturik daude, bai etxean bai ikastetxean, eta oso egokiak dira haurrek pertsona helduekiko harremanak, eragin-trukeak eta elkarrizketak izan ditzaten. Garrantzitsua da, alde batetik, familiek hezitzaileek horrelako jarduerari (jaten ematea, higiena, loa eta jolasa) nolako garrantzia ematen dieten ongi ezagutzea, eta bestetik, familiaren ingurunean zaintza-lanetan emakumeak eta gizonak berdin arduratu daitezten.

- *Nolako gaien inguruan eskuratu nahi zenukete informazio edo prestakuntza galderari erantzunez, familia askok hainbat gaiaren inguruan erakutsi dute interesa. Gainera, 139 pertsonak inkestan ez dauden gai berriak aipatu dituzte, adibidez, adimen emozionala, garapen ebolutiboa, elkarbizitza, eleaniztasuna, kasketaldiak, sexualitatea, teknologi berrien erabilera...*

Hezkidetza azpimarratu beharko genuke, inkesta bete duten pertsonen erdiak baino gehiagok (% 60,5) gai horri buruzko interesa adierazi baitu. Dirudienez, haurraren hazkuntzari dagozkion gaien inguruko prestakuntza beste leku batean jasotzen dutela (*higieneak eta loak, adibidez, interes gutxiago piztu dute*).

Era berean, guraso askok uste dute hezkuntza-eskaintzan *osasuna* (% 54,8), *elikadura* (% 51,6) edo *esfinterren kontrola* (% 38,5) bezalako gaien inguruko informazioa eta prestakuntza jasotzeko. Beheko taulan inkestan planteatutako gaiak azaltzen dira, bakoitzari emandako erantzun positiboen ehunekoarekin:

	2014	2016
Higienea	% 16,1	% 18,2
Loa	% 27,6	% 33
Esfinterrak	% 36,4	% 38,5
Elikadura	% 47,5	% 51,6
Osasuna	% 50,1	% 54,8
Hezkidetza	% 55,7	% 60,5

Gai nagusi horiekin batera aurreko atalean aipatutako beste jarduera batzuk (musika, ipuinak, hizkuntza, masajeak...) ere sartu beharko lirateke, haurraren garapenerako oinarri-oinarrizkoak baitira.

4. HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO IKASTETXEEN BALORAZIOA

4.1. GOGOBETETZE MAILA OROKORRA

Ondorengo taula eta grafikoetan lagineko familiek adierazitako gogobetetze mailari dagozkion emaitzak azaltzen dira.

Hain zuzen ere, lehen taulak galdera horretako balorazio-graduetako erantzunen ehunekoak jasotzen ditu. Hiru urteetako eboluzioa aztertuz, *Haurrekola Partzuergoko* erabiltzaileen erantzun ia guztiak oso positiboak dira eta oso maila altua erakusten dute. “*Oso ona*” indizea eta “*ona*” hartuz hiru urteetan % 98 baino gorako emaitzak lortu dira; hala ere, 2016ko emaitzetan balorazio altuena lortu da (% 98,5), “*oso ona*” indizea % 2,6 igoz eta “*ona*” indizea % 2,2 jaitsiz.


Haurreskolak ikastetxean jasotako zerbitzuarekiko gogobetetze mailaren bilakaera %

	2013	2014	2016
Oso eskasa	0,7	0,9	0,4
Eskasa	0,9	1,0	1
Ona	22,5	22,6	20,4
Oso ona	75,9	75,5	78,1

Hurrengo grafikoan galdera-sorta bete dutenen erantzunen ehunekorik aipagarrienak ordenaturik daude. Gogobetetze maila *baxua* edo *oso baxua* adierazi duten erantzunak ez dira % 2ra heltzen, lehen aipatu bezala, familiarik gehienek gogobetetze maila oso altua baitute.


Datu horiek baliagarriak dira, ze ikuspegi orokor oso positiboa ematen dute. Ikuspegi hori, atal jakinetako erantzunak aztertzen direnean, gurasoek adierazten dituzten desadostasunekin eta iradokizunekin osatu daiteke.

4.1.a. grafikoa. Haurreskolan jasotako zerbitzuarekiko gogobetetze mailen ehunekoaren bilakaera.



Haurreskola hau gomendatuko zenuke? galderak harreman zuzena du aurrekoarekin, *Gogobetetze maila*. Ondorengo grafikoan aukera bakoitzeko ehunekoak jasotzen dira:

4.1.b. grafikoa. Haurreskola hau gomendatuko zenuke? galderaren erantzunen bilakaera.



Ikus daitekeenez, emaitzak koherenteak dira aurreko galderarekin konparatuz. Beste urtetan egindako inkestetan bezala, 2016ko galdesorta bete dutenen % 98,1ek dio haurra eskolatuta dagoen ikastetxea gomendatuko lukeela. Zerbitzuaren balorazioa ia ezin hobea da, azkeneko hiru inkestetan bezalaxe. Gainera, 2016ko ikerketan *Bai* erantzunaren ehunekoa igotzen da pixka bat eta berriro 2013an lortutako ehunekoan kokatzen da.

4.2. HAURRESKOLETAKO HEZKUNTZA-LANAREN BALORAZIOA

Guraso gehienek balio handia ematen diote *Haurreskolak Partzuergo*ko lanari, haurren aurrerapena erantzun ia guztietan aitortzen baita.

Galdera-sortan haurrak *Haurreskolak Partzuergo*ko ikastetxe batean eskolatuta egotearen ondorioz izan duen aurrerapenez galdetzen da. %97,9k *Garapena eta ikaskuntza* atalean haurrak aurreratu egin duela erantzun dute; %98,6k *Harreman pertsonala eta bizikidetza* atalean ere aurreratu egin duela; eta % 93k *Segurtasun pertsonala* atalean ere aurreratu egin duela. Azken atal horretan 32 pertsonak balorazio negatiboa eman dute (lagineko populazioaren % 2,1).

Era berean, galdera-sortan familiei zazpi hezkuntza-alderdiri buruzko iritzia eskatzen zaie. Alderdiak multzotan banatu ditugu: alde batetik, *Haurreskole*tako hezkuntza-plangintzari dagozkionak, eta bestetik, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari dagozkionak.

Ondorengo taulan familiek haurra eskolatuta dagoeneko *haurreskolaren* hezkuntza-alderdi batzuei buruz egin duten balorazioa aurkezten da. Ikus daitekeenez, oso balorazio positiboa izan dute; hala ere, alderdi batzuetako emaitzak kontuan hartu beharko lirateke ikastetxeetako lana planifikatzerakoan.

HAURRESKOLAKO HEZKUNTZA ALDERDIEN BALORAZIOA	Nahiko + asko % 2013	Nahiko + asko % 2014	Nahiko + asko % 2016	Inoiz ez + gutxi % 2013	Inoiz ez + gutxi % 2014	Inoiz ez + gutxi % 2016
Haurrak tratatu pertsonalizatua jasotzen du, bere ezaugarrien eta beharren arabera	96,3	97,2	96,3	3,7	2,8	3,7
Haurreskolako jarduerak aurretiaz egindako hezkuntza-plan bati lotuak dira	93,8	94,7	93,3	6,2	5,3	6,7
Komunikazio-bideak erabiltzen dira; adibidez, “agenda ibiltaria” edo informazio-orriak	88,9	89,8	91,9	11,1	10,2	8,1
Haurren eguneroko gauzez hitz egiteko uneak daude; “haurreskola-familia harremana”	85,3	86,5	85,6	14,7	13,4	14,4

Azpimarratu beharreko lehen datua hau da: familia ia guztiek (% 96,3) uste dute “Haurreskoletan” *“haurrak tratatu pertsonalizatua jasotzen duela, bere ezaugarrien eta beharren arabera”*, berau hezkuntza-prozesuaren eta adin horretako arretaren gakoetako bat delako. Horrez gain, aipatu beharrekoa da gehiengo handi batek (% 93,3) positibotzat jo duela haurrekin egiten diren hezkuntza-jardueren aurretiazko planifikazioa. Bi alderdi horietan 2016an jaitsiera apur bat izan da erantzunen ehunekoetan.

“Haurren eguneroko gauzez hitz egiteko uneak daude” atalean izan da *Inoiz ez* eta *gutxi* erantzun duten familien ehunekorik altuena, % 14,4k uste baitu hezkuntza-lan hori ez dela behar besteko intentsitatez eta maiztasunez egiten.

2014 eta 2015 galdetegian bezala familiei berdintasunari buruzko balorazioa egitea eskatu zaie. Hiru alderdi jarraitzen dira baloratzen, hala ere, aurtengo honetan lehenengo galderaren formulazioa aldatu egin da. Sexuaren aldetiko bereizkeria eragozten den (jardueretan, jolasetan, testuetan...) galdetu beharrean, genero identitatea era aske batean eraikitzeak aukera dagoen galdetu da. Ez dago argi galderaren egokitzapen berriarengatik edo beste arrazoiren batengatik baina aurreko edizioetatik ona % 7tik gorako igoera izan du “nahiko-asko” atalak. Ikusi beharko da etorkizunean nolako balorazioa lortzen duen. Berriz, hurrengo bi alderdiak (*“emakumearen gizarte-balorazioa sustatzen da eta Berdintasunari buruzko prestakuntza, informazioa edo materialak jaso dituzue”*) berdin formulatu dira eta aurreko edizioekin alderatuz antzeko balorazioa lortu dute.

Haurreskolak Partzuergoak bere agirietan garrantzi handia ematen dio gai horri, eta beraz, interesgarria da familiek egin duten balorazioa ezagutzea. Hain zuzen ere, Partzuergoaren web gunean atal berezi bat dute “Berdintasuna”, “Berdintasunaren aldeko konpromisoa” 2016ko otsailean argitaratua eta “Berdintasun ekintza plana” atalean *“Haurreskolak Partzuergoaren Berdintasunerako II Plana 2015-2019 txostena dagoelarik”*¹⁴.

¹⁴http://www.haurreskolak.eus/administracion/arch_igualdad/Berdintasunerako%20II%20Plana.pdf

HAURRESKOLAKO BERDINTASUNARI LOTUTAKO ALDERDIEN BALORAZIOA	Nahiko + asko % 2013	Nahiko + asko % 2014	Nahiko + asko % 2016	Inoiz ez + gutxi % 2013	Inoiz ez + gutxi % 2014	Inoiz ez + gutxi % 2016
<i>Haurreskolako egunerokotasunak aukera ematen du genero identitatea era aske batean eraikitzeko</i>	89,9	90,1	97,4	10,2	10,0	2,6
<i>Emakumearen gizarte-balorazioa sustatzen da haurreskolako jardueretan</i>	87,7	87,4	86,1	12,3	12,5	13,9
<i>Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza, informazioa edo materialak jaso dituzue</i>	24,8	28,7	26,7	75,2	71,3	73,3

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko edukiak, hein batean, ikastetxeetako eguneroko bizitzan daude, familien % 26,7k erantzun baitute *gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza, informazioa edo materialak jaso dituztela*. Datu hau ikusirik, hiru edizioko txostenetan gehien eskatzen duten gai hezkidetza da aurten %60 helduz.

4.3. HAURRESKOLETAKO ANTOLAMENDU-ALDERDIEN, INSTALAZIOEN ETA ZERBITZUEN BALORAZIOA

Galdera-sortan zazpi **antolamendu-alderdi** orokor aipatzen dira, eta familiek balorazio ona eman diete. Ondorengo taulan *egokiak* edo *oso egokiak* direla uste dutenen ehunekoak eta *ez oso egokiak* edo *desegokiak* direla uste dutenen ehunekoak azaltzen dira handienetik txikienera ordenaturik, 2013 eta 2014ko ehunekoekiko konparazioarekin batera.

ANTOLAMENDU-ALDERDIEN BALORAZIOA	Egokiak + oso egokiak % 2013	Egokiak + oso egokiak % 2014	Egokiak + oso egokiak % 2016	Desegokiak + ez oso egokiak % 2013	Desegokiak + ez oso egokiak % 2014	Desegokiak + ez oso egokiak % 2016
Zure haurraren prozesuari buruzko txosten idatziak	96,2	96,6	95,4	3,8	3,4	4,5
Ate irekietako jardunaldiak	93,8	94,4	95,2	6,2	5,5	4,9
Haurreskolako administrazio-zerbitzuak	93,3	93,9	93,4	6,7	6,1	6,7
Zure haurraren sartze-prozesua eta egokitapena	89,8	89	90,6	10,2	11,0	9,4
Zure haurraren hezitzaileekiko elkarriketak	88,7	89,1	90,3	11,3	10,9	9,7
Elikadura, jolasak, loa, ohiturak eta antzeko alderdiei buruzko prestakuntza eta informazioa	87,4	85,8	85,8	12,6	14,2	14,2
Hezitzaileekiko eta beste familiekiko bileren maiztasuna	78,5	79,9	79,1	21,5	20,1	20,9

Antolamendu-alderdien balorazioa aztertuta, hiru urte hauetan datu antzekoak bildu dira. *Txosten idatziak* (% 95,4) eta *Ate irekietako jardunaldiak* (% 95,2) izan dira alderdirik baloratuenak. Baloraziorik txarrenea izan duen alderdia *Bileren maiztasuna* izan da, erantzunen % 20,9 negatiboak izan baitira.

Gainera, galdera-sortan *haurreskoletako instalazioei eta beste zerbitzu batzuei lotutako 15 alderdi* sartu dira. *Desegokia, ez oso egokia, egokia* eta *oso egokia* erantzun zitekeen. Planteatutako 15 alderdietatik 10ek oso balorazio ona izan dute (% 90etik gora), eta lehen aldiz *“Ahalmen urritasuna duten haurren edo senideen sarbidea”* delakoak %90,5 balorazioa izan du. Baloraziorik ezkorrena *Catering zerbitzua egotea* eta *Catering zerbitzuaren prezioa* alderdiek izan dute. *Partekatutako espazioak* eta *Kanpoaldeko guneak* alderdiek balorazio apalagoa izan dute.

Alderdi horietako batzuen ardurua zuzena *Haurreskolak Partzuergoarena* da, eta beste batzuen, berriz, udalena, adibidez, *esparruaren segurtasun maila*.

Ondorengo tauletan erantzunen ehunekoak azaltzen dira:

Erantzunen %90etik gorako baliospena duten alderdiak	2013	2014	2016
Egokia + oso egokia			
Altzariak eta bestelako baliabideak	96,9	97,1	96,9
Garbiketa eta mantentze zerbitzuak	96,6	96,8	95,8
Gaixotasunei erantzuteko protokoloak eta familiarekiko harremana	95,1	93,5	93,2
Familiak haurraren bazkaria eramateko aukera	92,9	95,1	95,5
Tokiaren segurtasun maila	92,8	93,4	92,7
<i>Haurreskolaren</i> eraikuntza	92,2	93,4	94,2
Ordutegiak: sarrera, irteera, bazkaria, siesta	91,7	91,5	91,9
Funtzionamendu-orduen kopurua	89,7	91,8	92,1
Instalazioak, espazioen tamaina eta banaketa	89,6	91	91,6
Ahalmen urritasuna duten haurren edo senideen sarbidea	89	87,2	90,5

Erantzunen %90etik beherako baliospena duten alderdiak	2013	2014	2016
Egokia + oso egokia			
Funtzionamendu-egunen kopurua	87,3	88,6	88,6
Espazio partekatuak (esekitokiak, iragarki-taula, sarrera, aulkitxoaren gunea ...)	86,3	88,3	88

Erantzunen %70etik beherako baliospena duten alderdiak	2013	2014	2016
Egokia + oso egokia			
Catering zerbitzua egotea	69,7	69,5	66,5
Catering zerbitzuaren prezioa	52,4	54,7	52,6

4.4. FAMILIEN PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA

Gurasoek *haurrekolako* bizitzan duten presentzia eta lankidetzari dagokionez, deialdietan guraso ia guztiek parte hartzen dutela ikusten da, eta ehuneko txiki batek bakarrik adierazten du hezkuntza-dinamikan parte hartzeko aukerak urriak direla. Ondorengo taulan atalik baloratuenak ikus daitezke:

Baiezko erantzunen %	2013	2014	2016
Hezitzaileak zure haurraren beharrak ezagutzen eta errespetatzen ditu	99	98,8	98,6
Hezitzailearekin hitz egiteko aukera egunero izaten duzu	93,7	94,7	94,5
<i>Haurrekolan</i> eskatzen dizkizuten argazkiak, liburuak edo bestelako materialak ekartzen dituzu	94,2	93,9	92,6
Hezitzailearekiko elkarrizketetara joaten zara	91,2	91,4	90,8
Haurraren taldeko bileretara joaten zara	90,3	89,4	89,4
Badakizu <i>haurrekolan</i> egunero zer gertatzen den, zer egiten den	84,3	86,6	85,8

Baloraziorik altuena izan duen alderdia haxe izan da *Hezitzaileak zure haurraren beharrak ezagutzen eta errespetatzen dit* (% 98,6), eta horrek berriro adierazten du *haurrekole*tako hezkuntza-lanaren aitortpena. Ehuneko altu hori koherentea da *4.2 atalean* aipatutako *Haurrak tratatu pertsonalizatua jasotzen du*, bere ezaugarrien eta beharren arabera alderdian erantzun baikorrek %96,3 izatearekin.

Familien parte-hartzeari lotutako beste alderdi batzuetan balorazio baikorren ehunekoa txikiagoa izan da eta hiru urteak alderatuz beheranzko joera bat adierazten dute. Ondorengo taulan azaltzen dira.

Baiezko erantzunen %	2013	2014	2016
<i>Haurrekolak</i> zure interes kulturalak jasotzen ditu.	78,6	78,1	77
<i>Haurrekolak</i> haur-hezkuntzari buruzko materialak ematen dizkizu (dokumentuak, bideoak, musika)	65,7	67,9	62,9
<i>Haurrekolak</i> 0-2 urteko adinari buruzko prestakuntza edo informazioa ematen dizu.	63,7	64,3	62,9
Kultura edo laguntza ekintzetan parte hartzen duzu (musika, irteerak, liburutegia, jaiak, ospakizunak)	60,9	57,5	54,5
<i>Haurrekolan</i> kultura edo laguntza ekintzetan parte hartzeko aukera eman dizute.	58,6	57,8	53,9

Bost baieztapen horiekin familien erdia baino gehiago ados dago baina hemen ere beherantz joera nabaria da. Hala eta guztiz ere, hiru urteetako joera ikusi ondoren eta inkesta bete duen populazioaren atal batek (% 20-40) bere desadostasuna adierazi duenez,

haurrekoletako ekintza berrietarako abiapuntu gisa har daitezke. Familiek eskolako bizitzan parte hartzearen aldeko jarrera dutela ikusten da, eta prestakuntza jasotzeko eta askotariko jardueretan parte hartzeko bideak eskatzen dituztela. Familien parte-hartzeak berekin ekarri ohi du ikaskuntzen hobekuntza, aniztasunarekin begirune handiagoa duen bizikidetza eta ikastetxea gizarteratze-agente bezala definitzea.

5. ONDORIOAK

Inkesta bete duten familiek haurraren *Haurreskolak Partzuergoa* zerbitzuaz egindako balorazioetatik ondorio hauek atera daitezke.

1. Ikerlan honetako 2013, 2014 eta 2016ko edizioetan bildutako datuak eta balorazioak alderatuz, egonkortasun handia ikus daiteke, bai datuetan, baita familiek *Haurreskolak Partzuergoko ikastetxeetan eskaintako zerbitzuari buruz eman dituzten balorazio eta iritzietan ere.*

Ikerlan honetako hiru edizioetan familiek zerbitzuari buruz emandako balorazioa oso altua izan da, eta aztertutako ia arlo batean ere ez da aldatu. Hala ere, galdetegia erantzun duten ehunekoak nahiko aldatu dira. Izan ere, azken inkestan parte hartzea bederatzit puntu jaitsi da, eta hori sakonki aztertu beharreko datua da.

Erantzunetako egonkortasun handiak eta ondoz ondoko hiru neurketatako joera sendoak adierazten digute *Haurreskolak Partzuergoko* ikastetxeetako hezkuntza-irizpideek eta jardunbideek familien artean duten onarpena eta balorazio positiboa oso sendoak eta fidagarriak direla, eta, baita ere, sendotasun hori balorazio orokorretan eta iritzia eskatu deneko alderdiei dagozkien berariazko balorazioetan gertatzen dela.

2. Ikerlanean parte hartu duten familien % 98,5ek *Haurreskolak Partzuergoko ikastetxeetan egindako lanaren balorazio orokor ona edo oso ona egin dute; ikerlanaren hiru edizioetako baloraziorik onena eta positiboena izan da berau.*

Familia ia guztiek balorazio positiboa adierazi dute *Haurreskolak Partzuergoko* ikastetxeetan egiten den lanari buruz. Gainera, erantzunik baloratuenak ere ehuneko altuagoa lortu du, 2014ko % 75,5etik oraingo edizioeko % 78,1era igoera izan duelarik. Inkesta bete duten pertsonen % 0,4k bakarrik adierazi dute zerbitzu honen balorazio oso ezkorra, aurreko edizioeko ehunekoaren erdiak baino gutxiagok.

Balorazio positiboa honako datu honek berresten du: familien % 98,1ek semea/alaba eskolatuta dagoeneko *Haurreskola* beste familia batzuei gomendatuko lieketela adierazi dute. Aitzitik, badirudi % 1,9 bakarrik ez daudela pozik bere ikastetxearekin eta eskolatzea ez lieketela gomendatuko adierazi dute.

3. Familiek oso balorazio positiboa eman diote *Haurreskolak Partzuergoan dauden hezitzaileek egindako lanari, bai haurren garapenaren eta ikaskuntzaren aldeko alderdietan, baita alderdi afektiboetan eta harreman pertsonalen ere.*

Inkesta bete duten familien % 98 inguruk adierazi dute bere haurrak, *Haurreskolak Partzuergoko* ikastetxean egindako lanari esker, aurrerapen nabaria egin duela bai bere garapenean eta ikaskuntzan, baita harreman pertsonal eta bizikidetzan. Harreman afektiboen eta segurtasun pertsonalaren arloetan bakarrik izan dira ehunekoak apur bat apalagoak, % 93 (arlo horretan inkesta bete duten pertsonen % 2,1ek iritzi txarra adierazi dute egindako lanari buruz).

4. Oro har, Haurreskolak Partzuergoko ikastetxeetan garatutako hezkuntza-ikuspegiak oso iritzi ona izan dute familien artean, eta bereziki arreta pertsonalizatua, irakas-jardunaren plangintzaren koherentzia eta guraso- hezitzaile komunikazio bideak. Hitz egiteko denboraren plangintzaren arloan bakarrik izan dira ehunekoak apur bat apalagoak.

Hezkuntza-ikuspegiari buruzko alderdi gehienetan familiek iritzi ona edo oso ona adierazi dute. Bi multzo bereiz daitezke: multzo batean aldeko iritzia % 90 edo gehiago izan direnak, eta bestean, berriz, % 85 ingurukoak. Ehuneko handia bada ere, zenbait kasutan beste multzoko ehunekoak baino hamar puntu apalagoak izan dira.

Lehen multzoan honelako jarduerak edo planteamenduak daude: "arreta pertsonalizatua jasotzen du, haurraren ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuz", "egiten dituen ekintzak eta jolasak, aurreko heziketa-plangintza batekin erlazionatuta daude", "komunikazio bideak (agenda ibiltaria, informazio orriak) erabiltzea". Ikastetxeetako lan egokia erakusten duen beste datu bat ere badago: inkesta bete duten pertsonen % 98,6k adierazi dute hezitzaileek haurraren beharrak ezagutzen eta errespetatzen dituztela.

Bigarren multzoan aldeko iritzien ehunekoak apalagoak dira, adibidez, ikastetxeak eta familiak elkarrekin haurrei buruzko gai arruntez hitz egiteko denbora baloratzean % 14,4k elkarriketa horiek gutxitan edo inoiz ere ez direla gauzatzen adierazi dute. Ehunekoa apur bat igo da 2014ko ehunekoarekiko alderatuz. Baina alderdi hori, aintzat hartu behar da *Haurreskolak Partzuergoko* eskoletako etorkizuneko hobekuntza-planetan, hobetu beharra ikusten deneko kasuetan.

5. Inkesta bete duten familien % 97,4k Haurreskolak Partzuergoak bere diagnosietan eta plan estrategikoetan adierazi duen berdintasunarekiko konpromisoa berretsi dute, Haurreskolako egunerokotasunak aukera ematen duela genero identitatea era aske batean eraikitzeke adierazi dutelako. Datuak 7 puntu baino gehiagoko hobekuntza ekarri du aurreko edizioetan bildutako iritziekiko baina ez dago argi galderaren egokitzapen berriarengatik edo beste arrazoiren batengatik izan den . Hala ere, gai horiei buruz jasotzen duten informazioari dagokionez, euren desadostasuna ere adierazi dute.

Haurreskolak Partzuergoaren 2015-19 II. Berdintasun Planean nesken eta mutilen arteko berdintasuna arlo guztietan bermatzeko jardueraren plan zehatz bat proposatu da, bere hezkuntza-ereduaren lerro estrategiko garrantzitsutzat hartzen delako. Hori dela eta, alderdi horiei buruzko zenbait galdera sartu ziren inkestan. Erantzunetatik ondorioztatu daiteke familien ustetan, genero identitatea era aske batean eraikitzeke etengabeko ahalegina egiten dela, iritzi horren aldekoen ehunekoa 7 puntu igo baita, 2013ko %89,9tik 2014ko % 90,1era igo delarik eta hortik 2016ko % 97,4ra. (Ez ahaztu 2016 galdera birformulatu egin dela, ikusi 36.orrialdea)

Beste alde batetik, familien ustetan badira, baita ere, hobetu beharreko zenbait alderdi. Ikastetxeko jardueretan emakumeen gizarte-balioespena ez dela sustatzen edo gutxi sustatzen dela diotenen ehunekoa apur bat igo da, 2013ko %12,3tik 2016ko ia % 14ra. Baina ehunekorik apalena izan duen alderdia gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza, informazioa eta materiala bidaltzea izan da. % 73,3k adierazi dute horrelako jarduerak ez direla inoiz egiten edo oso gutxitan egiten direla. 2013an egin zen lehenengo txostenean konpromiso horretaz ohartarazi zen, baina dirudienez ez zaio behar bezalako arretarik eman.

6. *Ikastetxeen antolamenduari, instalazioei eta zerbitzuei lotutako alderdiek oso balorazio altua izan dute, aldeko iritziak % 90 edo gehiago izan baitira aztertutako alderdi gehienetan. Oro har, aurreko edizioetako ehuneko altuak mantendu egin dira.*

Familiek oso balorazio ona eman dute ikastetxeetako jardueren antolamenduari lotutako alderdi ia guztietan. Iritzi positiboak edo oso positiboak % 90 baino gehiago izan dira honako alderdi hauetan: Haurraren prozesuari buruz jasotako idatzizko informeak, ate irekietako jardunaldiak, haurren sartze-prozesua eta egokitzapena eta hezitzaileekin egindako elkarrizketa bezalako adierazleetan. % 93,4k administrazio-zerbitzuak egokiak edo oso egokiak direla erantzun dute. Laugarren ondorioan gainera aipatu den bezala, bileren maiztasunean bakarrik izan da apalagoa iritzi positiboen ehunekoa, ia % 21ek maiztasuna desagokia edo oso desagokia dela erantzun baitute.

Instalazioek oso balorazio ona izan dute edizio guztietan. Izan ere, iritzi positiboak % 90 ingurukoak izan dira instalazioei lotutako alderdi guztietan (instalazioak, altzariak, garbitasuna, gaixotasunetarako protokoloak, segurtasuna, eraikina eta funtzionamendu-ordutegia). Salbuespen bakarra aurreko txostenetan ere aipatu zen alderdi bat izango litzateke, cateringari dagokiona alegia. Familien % 30 eta % 40 bitartean erantzun dute zerbitzua eta zerbitzuaren prezioa desagokiak edo oso desagokiak direla.

7. *Familiengan konpromiso handia ikusten da semea/alaba zaintzan eta bere hezkuntzaren jarraipenean. Ahalegin hori ikastetxeetan programatutako jardueretan elkarlanean aritzean ikusten da eta baita familiaren ingurunean haurrari hezkuntza-jardueretan laguntzean eta arreta ematean ere.*

Familiak etxeko jarduera eta egoera arruntetan semea/alabarekiko duen jarrera positiboak eta konpromiso kontzienteak ikaragarri laguntzen diote haurraren garapenari. Hori dela eta, inkesta bete duten pertsona ia guztiek erantzun dute ondorengoak bezalako jarduerak nahiko sarri edo askotan gauzatzen dituztela: "irribarre egin eta semea/alabari irribarrea itzuli, berarekin argi hitz egin aurpegira begiratzuz edo laztandu eta masajeak leunki eman". Eta, jakina, baita haurraren higieneari, elikadurari eta osasunari dagozkien zenbait jarduera ere.

Familiaren inguruneko jardueren artean batzuek maiztasun txikiagoa dute, hala nola, musika entzutea, abestea edo ipuinak kontatzea eta irakurtzea. Azken kasu horretan familien % 72,9k erantzun dute nahiko sarri edo askotan egiten dutela, baina % 30ek gutxitan edo inoiz ez dutela egiten erantzun dute.

Familiaren hezkuntza-konpromisoari dagokionez, aipatu beharrekoa da % 90k baino gehiagok taldeko bileretara eta guraso-hezitzailearen arteko banakako elkarrizketetara joaten direla eta ikastetxetik eskatzen dieten materiala eramaten dutela erantzun dute. Familien % 86k erantzun dute badakitela ikastetxean zer gertatzen den eta semea/alabak egunero zer egiten duen.

Hala ere, familiek parte hartzearen arlo horretan nabaritzen dituzten beharrei erantzun argia eman behar zaiela ikusten da, hala nola, haur-hezkuntzari edo 0-2 urtekoen hezkuntzari buruzko materialak eman beharra edo ikastetxeko kultura-jardueretan edo laguntza-jardueretan parte hartzeko aukera handiagoa eman beharra.

6. BIBLIOGRAFIA ERREFERENTZIAK

- Arna, J. I, (2007): Haur Hezkuntza. Gizonon Erronka, e-Revista de Didáctica 1, Retrieved 2007/12/1 from http://www.ehu.es/ikastorratza/1_alea/hezkidetza.pdf
- Cebolla-Boado, Héctor, Radl, Jonas y Salazar, Leire (2014). *“Aprendizaje y ciclo vital. La desigualdad de oportunidades desde la educación preescolar hasta la edad adulta”*, La Caixa Fundazioa, Coleccion Estudios Sociales, Num 39. http://prensa.lacaixa.es/obrasocial/volumen-39-coleccion-estudios-sociales-obra-social-la-caixa-educacion-preescolar-desigualdad-social-esp_816-c-21242_.html?obj=816,c,21242&view=photo
- Euskadiko Eskola Kontseilua (2016): *Hezkuntza Euskadin, 2013-2015*, Vitoria-Gasteiz. http://www.consejoescolardeeuskadi.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=675968f2-0f17-4876-b5a2-f0c00eb14ddb&groupId=17937
- EUSTAT. www.eustat.eus.
- Friedman-Krauss, Allison Barnett W. Steven (zuzendaria) y Nores, Milagros (2016): *How Much Can High-Quality Universal Pre-K Reduce Achievement Gaps?*. National Institute for Early Education Research at Rutgers (State University of New Jersey). <https://www.americanprogress.org/issues/education/reports/2016/04/05/132750/how-much-can-high-quality-universal-pre-k-reduce-achievement-gaps/>
- Haurreskolak Partzuergoa. <http://www.haurreskolak.eus/>
- ISEI-IVEI (2014). *Haur Hezkuntzako lehen zikloa Euskadin. Haurreskolak Partzuergoko ikastetxeen azterketa eta balorazioa*. http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/haurrekolak/exekutiboa_Haurreskolak_eus.pdf
- ISEI-IVEI (2015). *Haur Hezkuntzako lehen zikloa Euskadin. Haurreskolak Partzuergoko ikastetxeen azterketa eta balorazioa*. <http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/web/guest/educacion-infantil>.
- Marcos, Liliana eta Ubrich, Thomas (2016): *“Necesita mejorar, anexo Euskadi”* Save the Children.

https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/necesita_mejorar_veusk_cas_web.pdf

- Ministerio de Educación, Cultura y Deporte (2016): *Sistema estatal de indicadores educativos*.

<http://www.mecd.gob.es/dctm/inee/indicadores/2016/seie2016okkk.pdf?documentId=0901e72b8222f7d1>

- OECD (2015): *Family database*. <http://www.oecd.org/els/soc/oecdfamilydatabase.htm>